

Gernika-tik Guernica-ra

«De Gernika a Nueva York pasando por Berlín», el doctor Alvarez Lastra, Telesforo de Monzón, Ramón Azkue, Saseto... Ardanza, Pacto de Legislatura número 17, Recalde... Ikastolen, Euskal Unibertsitatearen eta euskalduntze-prozesorearen buruzagi. PSOE-ko bat. José Ramón Recalde bera. What and see!

Asmatu ere ezina litzateke Kataluña Hezkuntza-Saila katalanez ez dakien eta Kataluñaren kontra nabarmendu den persona baten eskuetan erortzea. Vascongadoan, herriz, PNV ren besotik, Arzalluz politikari apartaren ildotik, Hezkuntza Saileko zuzendartzan anti-euskaldun ezagun bat ipintzea, zergatik ez? ¿Qué pasa, tío? Eta horriela, erdaldun huts, erdaltzale nabarmen eta gure herriaren nazio-eskubideen etsirik amorratuaren eskuetan jarri digute Gaitezien enbudoak.

Betidanik, eta inoiz ere bere helburu espainizalea disimulatu gabe, beti buru edo buru-ordé, Euskal Herriaren nazio-eskubideen kontrako operazio guztietan egon da Recalde. Hori bide da berorren ohorea. Azkeneko biak, jakina denez, hauek izan dira: gudariaren kontrako «Asociación contra la violencia», edo horrelako zer bait. Savater-ekin eskuz esku; eta, «intelektualago». «Cuadernos de Alzate» denitzen liburuskia sorta biltzaitza. berriro ere Savater-ekin eskuz esku.

Bigarren honetan, dena dela, espainolizari famatuak hautatu bide ditu lankide: Lauerro (aspaldiko laguna, jakina), Eguiararay, Guerra Garrido, Juan Aranzadi, García Ronda... Baita aspaldiko honetan euskalduntasunaz damutu bizi diren beste batzu: Juaristi, Unzueta, Amigo, Gurayalde. Gainerakoak ez diugu aipatuko: baina herri txiki honetan zaila da moztotrik luzaiz irautea.

Autodeterminazio eskubidea ukatzen duen gizona

Recalderen tema aldakizak ongi ezagunak dira: eta ez dagoz batera Euskal Herriaren eskubideen aldeko borrokaekin. Eta bere tema horiek lotsarik gabe bota zituen herriro Autodeterminazioari buruzko Biltzarrean (1985).

Estatuaren aldeko amorratu da Recalde. Edozein fazistak bezala. Estatuan ikusten du Recalde eskubideen iturri nagusia. Estatuari esker, hain zuzen, gordinki apimarratzen duenez, «el orden público sustituye a los conflictos privados». Aspaldiko denboretan Recalde «marxista» (?) agertu ondoren, ez du Estatu klase zapaltzailearen tresna gisa ikusten, istilu «pribatu» kontrako arbitro errugabe eta orbangabe gisa baizik. Recalderi Estatu Txano-Gorritxu bera iruditzen zaio. Onna gaxoa!

Eta gauza bera, jakina. Espainiako Estatu mantautu: Madrilen esker libratzen bakara euskaldunok «violencia doméstica»-etatik.

Hain zuzen ere, Estatu federalak eta antzekoak sasiko Estatuak zaizko Recalderi Helburua Estatu baina baita, «el Estado dotado del vigor del estado unitario».

Estatu bati eta sakratuaren kontra abertzaleak gorapatzen dugun autodeterminazioa, bera, gure herriko parte baten «pretensio» bat baxerik ez zaio. Autodeterminazioari eskubide maila Estatuak ematen dio, eta ez baxerik ezker: «El derecho de secesión está subordinado a la garantía de la unidad estatal».

Recaldek ongi daki halere autodeterminazioaren eskubidea behin eta berriz aldarrikatu dutela organizazio internazionalak, ONU-k



José Ramón Recalde eta Txillardegi.



barne. Hain zuzen ere kopiatu egiten du 1966ko pasare famatua: «Todos los pueblos tienen el derecho de libre determinación. En virtud de este derecho establecen libremente su condición política, y proveen asimismo a su desarrollo económico, social y cultural». Baina...

Konstituziotik kanpo, ezerk ezin du existitu

Baina —eta hemen hasten dira «bainak» eta ezezkioa funtsatzeko arazoak— baina Euskal Herriak ez dauka halere autodeterminazio eskubiderik. Zergatik?

Irakur ondo: 1978ko Konstituzioak eskubide hori legezatu ez duela. «Si hubiera derecho a la secesión, éste tendría que estar reconocido en la Constitución. Si la Constitución no lo reconoce, no existe tal derecho positivo». Euskaldunok ez dugu Konstituzio hori onartu; eta, baxerik ere, Konstituzio hori ez da indar-harremaren konprometua baizik. Baina hau guztia berdin zaio Recalderi: Konstituzioa ez datorrena, ez da «pretensioa» baizik. «Porque pertenece exclusivamente a la soberanía de todo el Estado, definitivamente constituido, conceder o rehusar a una fracción de su población la determinación de su propia suerte por vía del plebiscito, o por otra manera». Euskaldunon eskubidea, hitz batez, espainolen eskuetan dago. Bapo, motelli!

Salbuespen bakarra, herri «kolonialak» dira; eta gu, jakina denez, ez gara moreak eta ez beltzak. Beraz, espainolak gara osoki; eta ez dugu inolako eskubiderik geure zortea aldatzeko.

Hain zuzen ere, «el 'pueblo' —kaxotzen artean Recalderen luman— titular del pretendido derecho es, según la doctrina de la ONU, el pueblo del territorio del Estado, y no un concepto étnico de pueblo. La única variante —la colonial— afecta a una separación del territorio de la metrópoli y de la colonia, pero no a una división de etnias». Berritri ere, Euskal Herriak ez du autodeterminatzeko eskubiderik: «El derecho a la secesión no está recogido en el orden jurídico, salvo la situación colonial». Euskaldunok Borneon edo Kamtxatkan bizi izan bagina, tira. Baina hemen, Espainiaren ondoan. Mesede!

Ados ez dagoen baten iritzia

Jakina, iritzi hori ez da juristen iritzia; eta Aita Obieta jesuitarena ere ez. Berau autodeterminazioaren alde baitago, han eta hemen. Eta aitortu egin behar du azkenean Recaldek: «(el P. Obieta) ofrece una interpretación discordante». Obieta EUTG-ko zuzendaria da, eta Recalderen ugazaba, beraz. Eta horretatik dator moderazio hori; Recaldek jesuiten egin baitu bere karrera: (su opinión) no resulta de-mastado convincente».

Recaldek ez du egia esaten. Hector Gros Espiellék, ONU-ko kontseilarri nagusiak, hau azaldu baitzuten Euskal Herriari: «(el derecho a la autodeterminación) debe conceptualizarse como un caso de jus cogens, es decir, de norma imperativa de Derecho Internacional... Es un derecho cuyos titulares son todos los pueblos. Todo pueblo tiene, como consecuencia de su existencia misma, el derecho a la libre determinación».

Espainiako Konstituzioak, ezaguna denez, ez du autodeterminazio eskubidea onartu. Baina hori ñimiñokeria iruditzen zaio Recalderi: «Ni desde el sistema constitucional, ni desde el internacional, podrá alegarse que el Estado que no reconoce el derecho pleno a la autodeterminación incurra en ilegalidad». Hutsune horretan ez dago ezer larrik: «Que el Estado no conceda el derecho pleno de autodeterminación puede suponer una imperfección en su funcionamiento democrático, pero no por ello cabe deducir la ilegitimidad del poder establecido». Argi eta garbi.

Gainera, zer segurantz dago inoiz Euskal Herria bere buruaren jabe izatera helduko balitz, ez ote litzatekeen denonizot okerrago izango? Mintza begiku PSOE-tar «jaurlari» berria: «La conservación del Estado existente presenta a veces una garantía mejor para la paz general que el advenimiento de la nacionalidad, que no siempre se libra del desencadenamiento de pasiones elementales, difíciles de dominar». Gernikako bonbaketa ekintza garbia eta burutsua izan zen. Eta beharrik izan genuen Falanjan 40 urtez; bestela asta-grina horiek inora joango ote ginen!

Autodeterminazioaren sujetoa

Recaldek, bestalde, ez du ikusten zein izan daitekeen autodetermina-

zioaren «sujetoa»: «Los individuos pertenecen a muy distintos grupos sociales, con los que sostienen diferentes identificaciones». Herrien nortasuna edo identitatea mamua iruditzen zaio betidanik, «idolo esencialista irracional». Euskal herri-nortasunik ez dago: «Sólo las ideologías esencialistas —FLP-ko garain hitz berberak erabiltzen zituen— herederas del romanticismo político contrarrevolucionario— pretender fijar el concepto de pueblo nacional en unas identidades objetivas o etnias». Nor deabruk izango du hemen autodeterminatzeko eskubiderik? Zer da Euskal Herria? «Para tener derecho de autodeterminación haría falta, no sólo la voluntad del pueblo nacional, sino antes que existiera la nacionalidad objetiva de ese pueblo». Pero «todo esencialización del concepto de nación es irracional». Espainiarrak badaude, espainiarren Estatu hor dagoelako, eta mugak non dauden garbi dagoelako. Baina Euskal Herria, zer da hori? Noraino helten da? Nor da euskalduna? «¿Por qué sólo esa comunidad nacional tendría tal derecho, y no otras comunidades tan objetivas como ella? ... ¿Por qué una de estas identificaciones ha de tener sentido, para que le sea atribuido el derecho de autodeterminación y las otras no?». Zergatik ez du Barakaldok izango autodeterminatzeko eskubidea? Zergatik ez Rotxapeak, Zanartuk edo Filatelisten Elkarteak? Zergatik ez?

Estatuari buruz ez dira arazo hauek gertatzen. Zer da Espainia? Guardia Zibila kontrolatzen duen eskualdea. Nor da espainiarra? Eskualde horretan bizi dena (beste Estatu batek emandako pasaportetik ez badu, jakina).

Kolonialismoa eta indarrezko jarrerak

Estatu normallean klase-zapalketaren eta inperialismoaren ondorio hutsa da. Baina «xehetasun» hau ahantzi egiten zaio Recalderi. Baina, alderantz, anti-kolonialismoan hortzeria gaizta aurkitzen du: «El nuevo Estado que surge de la emancipación colonial, aun cuando pueda, en última instancia, aparecer referendado por el derecho de la metrópoli, es un acto de nueva creación, un acto de fuerza». Eta hemen Recaldek bere soine-

koak urratzen ditu. Zeren-eta atzoko Argelia, adibidez, edo heranegungo Kuban, autodeterminazio eta burujabetasuna bortxare bidez lortu zirenik, nola ukatuko?

Recaldek, ordea, ez du kolonialismoaren bidegabekeria osoaz tutik esaten. Kolonialismoa, eskubideen erreinu gisa aurketzen du. Baina, zer izan da militarragorik, basaborik, odoltsuagorik eta barkatu-ezinagorik europar kolonialismo baina? Nola okupatu ziren Ameriketako herrialdeak? Eskapularioak banatuz? Boto-txartelak eskainiz? Otoi!

Guixiengo iraultzaileek, bestalde, bere onetatik ateratzen dute Recalde: «No hay minorías que tengan asignados títulos especiales de gobierno sobre las mayorías del pueblo». Okupazioko indarrek ere ez; eta «quisling»-ek eta alienatzaile-taldeek ere ez. Dirudunek ere ez, bidenabar esateko; kapitalistek, bestela esanda. Ez baitira gehiengo. Baina Recaldek ez ditu hauek gogoan, ezker abertzalea baizik.

Zer iruditzen zaio Recalderi, bestalde, alienazioaren teoria? Faltsua agian? Klase edo nazio-zapalketaren ondorioz, herri baten multzo handi bat, arce handiena ere, alienatutik gerta daiteke. Nazio-kontzientzia, bereziki, indarka gal-erazitako hizkuntzarekin batera itzal daiteke, Euskal Herrian bertan itsu batek ere ikus dezakeen bezala. Eta zer esango lanik gabe eta eskuidar agertzen diren langileez? Zalanztan jarriko ote du egia ezagun hau, noizpait «progre» gisa azaltzen ziztaigan irakuslea?

Recalde, «ultraeskuindar» hori

Sartrek ongi zioen bezala, profetikoa ez da aldeaz aurretik itxaroten. Profetikoak hartu egiten du; profetikoa errotik berria eta berrizale delako. Iraultza ere, benetako deanean, profetikoa da. Recaldek maite duen Estatu zaharra ez da inon profetikoa, eta hemen ere ez. Profetiko ez dena, hain zuzen, profetikoa ez delako, gehiengoarekin ezkontzen da. Alderantz, normala da iraultzailea haseran populua eskatua edo ulertua ez izatea. Beren garaikideen kontra altxa ziren Marx, Mao, Marit, Padraig Pearse eta Ahmed Ben Bella. Baina hauek zekarten gero; zapalketen amaia zekartzelako. Oraindik ere Recalde gauza hauetzat jabetu ez bada, ultra-eskuindarra da.

Eta ez da jabetu. Badakigu, Ezta jabetuko ere. Sozial-inperialismoaren teoriko nagusia izan da beti Recalde; eta, hortaz, ezker abertzalearen desbideratzaile eta pozoiztzaile porrokatua. Inork ez ditu abiliak ukatzen euskal nazio-eskubideak Ardanza-ren laguntza berriak baino. Ez da miraria Savater-ekin eskuz esku eta lagun min ibiltzea. Anaiak bizikiak dira. Bion oztapa-harri eta tema bakarra gu gara; gu eta euskal mugimendu abertzalea.

Negarria da, ordea, fazismoaren kontrako borroka hartuak Agirre eta Montzonek egoera ezin zailagotan sortu zuten «Jaurlantza» haren ondoko taldean, gaur horrelako persona batek leku bat lortzea. Kafkatar kutsua du. Halako batez ni Falangeko Kontseilu Nazionalaren postu bat lortzea bezalatsua.

Baina, hain zuzen ere, Recalderen arrakastak erakusten du argiroenik Ardanza-ren betekizuna zein den, eta Vascongadoan legetasuna zeren eta noren zerbitzutan dagoen.

Erdal esarak zehazki dionez: «Dime con quién andas, y te diré quién eres».

Irakurleak atera bitza, hortaz, ezinbesteko ondorioak.